

## GOSEA ELIKATZEN DUEN DESBERDINKERIA

### Helburuak:

Proposatzen dizkizuegun jarduera guztiak elkarren osagarri dira eta helburu berberak daukate:

- Pertsona gisa guztiok desberdinak garela onartzea.
- Desberdinkeria zer den ulertzea.
- Bidegabekeria edo injustizia zertan datzan ikustea.
- Jokabide edo arau bidegabeak ezagutzea.
- Bidegabekerien aurrean, jarrera kritikoa izatea.

## DESBERDINTASUNA ETA DESBERDINKERIA

Jarduera honetan, jolas bat egingo dugu, bi kontzeptu horiek lantzeko: desberdintasuna ohikoa da gizakion artean; desberdinkeria, berriz, gehiago dago gizartearekin eta ekonomiarekin lotuta.

Horretan oinarrituz, adibideren bat asma dezakezue, eta gero klipmetraje batean jaso, hausnarketa egitera bultzatzeko.

### Irakasleentzako aurretiazko oharra

Guztiok desberdinak gara, baina berdinak ere bai. Desberdinak izateak esan nahi du aniztasuna dagoela gure artean, berezitasunak ditugula, eta ez garela guztiok modu bakar batekoak. Horrek naturarekin du zerikusia. Baina itxura eta ezaugarri desberdinak ditugun arren, duintasun berbera daukagu guztiok. Hala xedatzen du, adibidez, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak. Alde horiek gure gizatasuna berresten dute, gure duintasuna pertsona gisa, eta guztiok dauzkagun ezaugarri komunei lotuta dago: guztiok daukagu besteen beharra (familiarena, bikotekidearena, lagunena...), guztiok nahi dugu bizimodu duina, guztiok daukagu elikatzeko beharra, ikasteko gogoia, eta abar.

Desberdinkeria, ordea, kontzeptu etiko-juridiko bat da gehienbat, eta diskriminazioarekin eta bazterkeriarekin du zerikusia. Alde handiak eragiten ditu gizakion artean, eta batzuei eragotzi egiten die dauzkaten behar edo ametsak bete ahal izatea. Desberdinkeriak urrundu egiten gaitu elkarrengandik.

### Hasi baino lehen

Jarduera honetarako, erabil ditzakezue bai *Me gusta* testua, ikasle guztientzat ikusgai jarrita, edo bai [Me gustas tú](#) abestia (letra ikusiz), edo biak.

### Garapena

Irakurri testua eta/edo entzun abestia, eta aipatu horietan azaltzen diren kontzeptuen edukia, ikasle guztiek uler ditzaten.

### Hausnarketarako ildoak

Bukatutakoan, galdera batzuk egingo dizkiegu ikasleei, edukiaren inguruan hausnarketa egiteko:

#### Desberdinak gara...

- Pertsonaia horietakoren batekin identifikatzen al zarete? Desberdinak al gara elkarrekiko?
- Zein da testuko eta abestiko esaldi guztien artean gehien gustatu zaizuena? Zergatik?
- Aztertu abestiko esaldi hau: «Zu eta ni desberdinak gara, baina bietako inor ez da bestea baino hobea». Desberdinak izateagatik besteak baino hobekak edo okerragoak garela pentsatu behar al dugu?

Pertsona batzuek behar bereziak dauzkate. Identifikatu testuan eta abestian agertzen direnak.

- Behar bereziak izateak esan nahi du pertsona horiek ezin izango dituztela beren ametsak bete?
- Zuen ustez, mundu osoan gure berdin-berdina den beste inor ez egoteak bereziak egiten al gaitu? Hori ona al da? Zer gertatuko litzateke guztiok berdin-berdinak bagina?

### ...baina berdinak gara.

Pentsa dezatela zer egitea gustatzen zaien. Txandaka esaten joan daitezela. Batek gustuko duena esaten duenean, altxa dezatela eskua hori bera gustuko dutenek.

Denak entzun ondoren, esan eskua altxa dezatela beren gurasoak maite dituztenek. Gero, altxa dezatela eskua gose direnean jan egiten dutenek edo egarri direnean edan egiten dutenek.

- Ikusten al duzue zenbat gauzetan garen berdinak? Hain desberdinak al gara elkarren artean?
- Zertan gara antzeko? Aipatu berdin egiten gaituzten bost elementu.

Orain, esan dezatela denen artean egiteko moduko jarduera bat. Esango diegu pertsona batzuek, beren ezaugarriak direla eta (adibidez, betaurrekoak eramatea), ezin izango dutela jardueran parte hartu.

- Hori ondo al legoke? Bidezkoa al litzateke?
- Ez al lukete denek baldintza berdinetan parte hartu beharko?
- Lehen testuan eta abestian ikusi ditugun desberdintasunak bezalakoak al dira?

### ME GUSTAS TÚ

LETRA ETA MUSIKA: Javier de la Morena. JDL Music

Me gustas tú porque tu piel es chocolate  
piel morena, yo soy de miel.  
Me gusta que puedes contar,  
historias en lenguas extrañas,  
de aquí y de allá.

Me gusta verte en tu disfraz,  
como un pirata en su fragata,  
que surca el mar.

Sé que todos sin excepción  
podemos ser héroes de un sueño  
porque, yo...

### ERREPIKA

Puedo leer tus poemas con tocar,  
puedo escucharte cantar sin oír tu voz,  
puedo sin mis ojos verte sonreír  
y contigo correr, si me prestas tus pies.

Me gusta pensar que tú y yo  
tenemos cosas diferentes y no es mejor.  
Sé que todos sin excepción  
podemos ser héroes de un sueño  
porque, yo...

ERREPIKA (3 aldiz)

### BIDEZKO LETRAK

Dinamika honek egoera bidegabe bat planteatzen du ikasleei proposatutako jarduera batean. Helburua da bidegabekeriei buruz eta horien aurrean hartzen dugun jarrerari buruz hausnartzea.

Egoera horiek erakusten dituen adibideren bat sor dezakezue, eta gero klipmetraje batean jaso.

#### Hasi baino lehen

Inprimatu eta moztu lau laukizuzen hauek. Lau talde sortuko dituzu gero, eta talde bakoitzari bat emango diozu. Taldeek bokal kopuru ezberdina izango dute jardueran, haien arteko desberdinkeria islatzeko.

|   |   |
|---|---|
| <p>A taldea<br/>Bokal hauek erabil ditzakezue: 7 A, 7 E, 5 I, 4 O eta 3 U</p> | <p>B taldea<br/>Bokal hauek erabil ditzakezue: 7 A, 6 E, 4 I, 3 O eta 3 U</p> |
| <p>C taldea<br/>Bokal hauek erabil ditzakezue: 5 A, 4 E, 3 I, 2 O eta 2 U</p> | <p>D taldea<br/>Bokal hauek erabil ditzakezue: 3 A, 2 E, 2 I, 1 O eta 1 U</p> |

#### Garapena

Jarri ikasleak lau taldetan. Talde bakoitzari bere papertxoa eman. Jardueran zenbat bokal erabili ahal izango dituzten jartzen du papertxo horretan. Azalpena eman:

«Papertxoan dituzuen bokalak erabiliz, zentzua duten hitzak sortu behar dituzue, ahalik eta gehien. Nahi dituzuen kontsonanteak erabil ditzakezue, eta nahi adina, baina bokal kopuru mugatua duzue: paperean dituzuenak soilik erabili ahal izango dituzue, ez gehiago».

Eman hamar bat minutu hitzak sor ditzaten. Denbora hori agortutakoan, eskatu taldeei (aurrena, D taldeari) esateko zenbat bokal zeuzkaten eta zer hitz sortu dituzten.

#### Hausnarketarako ildoak

Lau taldeek beren bokalak eta beren hitzak esan ondoren, bota honelako galderak ikasleei:

- Zein taldek sortu ditu hitz gehien? Talderik gelditu al da hitzik sortu gabe?
- Talde guztiek abiapuntu berdina al zeukaten? Talde guztiek hitz kopuru bera sortu al dute?
- Talde guztiek bokal kopuru bera al zeukaten hitzak sortzeko?
- Bidezkoa al da talde batzuek bokal gehiago izatea, eta beste batzuek gutxiago?
- Bidezkoa al da hitz gehien sortu dituen taldea irabazle izendatzea? Zer egin beharko litzateke talde guztiak berdintasun-egoeran aritzeko?
- Talderen bati sobratu al zaio bokalik? Baiezkoan, bururatu al zaio bokal horiek beste talderen bati ematea? Hausnartu horren inguruan.

### LASTERKETA

Jarduera honetan, bidegabeba izango da abiapuntua, injustua. Helburua da injustiziei buruz eta horien aurrean hartzen dugun jarrerari buruz hausnarketa egitea.

Egoera bidegabe horiek erakusten dituen adibideren bat har dezakezue, eta gero klipmetraje batean jaso.

### Irakasleentzako aurretiazko oharra

Talde bakoitzak arau desberdinak izango ditu. Horregatik, talde bakoitzari banan-banan emango dizkiogu arauak, besteek ikus ez ditzaten. Hauek dira arauak:

- A taldea: txingoka ibili behar dute.
- B taldea: oinez ibili behar dute.
- C taldea: korrika ibili behar dute.

Behatzaileek begiratu beharko dute beren taldeko kideek arauak betetzen dituztela; betetzen ez badituzte, ez diete lekukoa emango.

### Hasi baino lehen

Hartu hiru saski edo ontzi eta kontuak eramaten joateko txitxirio batzuk (edo harritxoak, kanikak edo horrelako zerbait).

Prestatu lasterketa egiteko leku bat. Markatu irteera-lekua eta entrega-lekua. Azken horretan behatzaileak egongo dira.

### Garapena

Aukeratu hiru ikasle, behatzaileak izan daitezten. Gainerakoak hiru taldetan banatu. Azaldu zer egin beharko duten:

«Taldeen arteko lasterketa bat egingo dugu. Helburua da ahalik eta txitxirio (edo harritxo, kanika edo dena delako) gehien lortzea. Talde bakoitzeko kideak txandaka joango dira ateratzen beren irteera-lekutik. Pertsona bakoitzak ibilbide bat egin behar du behatzailea dagoen lekura arte; behatzaileak txitxirio bat (edo dena delakoa) emango dio, eta txitxirio hori irteera-lekura eraman beharko du, eta hor egongo den saskian sartu. Momentu horretan, taldeko hurrengo kidea aterako da ibilbidea egitera.»

Arau orokor horiek azaldu ondoren, behatzaileak dagokien taldearengana joango dira eta lasterketan bete beharko dituzten arau bereziak esan beharko dizkiete taldekideei.

Denek argi dauzkaten arauak, lasterketari hasiera eman. Denbora egokia eman, taldeek ibilbidea amai dezaten.

Batzuek beharbada protesta egingo duten arren, ez aldatu arauak. Hala ere, talderen batek uko egiten badio baldintza horietan parte hartzeari, aukera emango diogu ez parte hartzeko, baina besteek lehian jarraituko dute.

### Hausnarketarako ildoak

Honelako galderak egin ikasleei:

- Zer moduz pasatu duzue? Pozik ibili al zarete?

Protestak izan badira:

- Zein taldek egin dute protesta? Nola erantzun dute gainerakoek?
- Garrantzitsua al da injustiziaren bat ikusten dugunean protesta egitea? Hala egiten al dugu?

Protestarik izan ez bada:

- Hiru taldeek egoera bera al zuten lehiazeko orduan? Bidezkoa al da saria abantaila gehien zituenarentzat izatea?
- Lasterketan zehar, inork ez du protesta egin. Zergatik? Konturatzen al zarete ezer esaten ez baldin badugu injustuak diren jokabide askok bere horretan irauten dutela?
- B eta C taldeetako, galdetu: konturatzen al zarete batzuetan beste batzuek pairatzen dituzten injustizien kontura izaten direla gure abantailak?

## BEHARREZKOAK GARA

Jarduera honen bidez, ikusarazi nahi dugu pertsona guztiok ekarpen garrantzitsua egiten diogula taldeari, eta gutako bakoitza bakarra dela, berdinek gabea. Horretan oinarrituz, erakutsi nahi dugu guztiok hartu behar dugula konpromisoa eginkizun komunetan, eta guztiok egin behar dugula lan helburu komunak lortzeko, hain zuzen ere mundu guztiak egin dezakeelako ekarpena jardueretan.

Eginkizun komunetan gutako bakoitzaren ekarpenak duen garrantzia klipmetraje baten gidioan jaso dezakezue.

### Irakasleentzako aurretiazko oharrak

Jarduera hau bi modutara egin daiteke, ikasleen adinaren arabera. Hezitzaileak erabakiko du bi moduetako zein den bere ikasleentzat egokiena.

Gazteenen kasuan, haurrei eser daitezela eskatzen hasten garenean, garrantzitsua da une batean etentxo bat egitea, gertatzen ari denaz jabetzeko; hala, ozen galdetuko diegu zenbat pertsona eseri diren eta zenbat gelditzen diren zutik. Horrela, ondorioak ikusten joango dira.

### Lehen eta bigarren zikloetarako garapena

Ikasle bakoitzak orri batean bere izena idatz dezala. Idatzi dutenean, zutitu daitezela, papera eskuetan hartuta.

Orduan, esango diegu Letren Herrialdean gaixotasun bat ari dela zabaltzen, eta gaixotasun horrek bokalei eragiten diela. Gaixotu den aurreneko bokala U da; beraz, haien izenean U bokala duten ikasleak eseri egingo dira.

Gero, beste bokalekin jarraituko dugu: O, I eta E, ordena horretan. A bokala bakarrik utziko dugu osasuntsu; besterik gabe, jardueraren amaieran ikasle batzuk zutik gera daitezten.

### Hausnarketarako ildoak

Sustatu elkarrizketa ikasleekin, honelako galderak eginez:

Azkenean, zenbat ikasle gelditu dira zutik?

- Ikusten al duzue ze garrantzitsua den letra bakoitza izenetarako?
- Pentsa dezagun guztiok batera egiten dugun zeregin batean; adibidez, gela txukuntzea. Zer gertatuko litzateke ikasgela zutik gelditu direnek bakarrik txukundu beharko balute? Haietako bakoitzak askoz ere lan gehiago egin beharko luke, ezta? Eta denbora gehiago beharko al lukete ikasgela txukuntzeko?

Orain, pentsa dezatela gizarteko eginkizun eta jardueretan.

- Zer gertatzen da gero eta pertsona gutxiago daudenean?

Orain, aipamen bat egingo diegu guk guztiok gizarte gisa dagozkigun eginkizunetan parte hartzeko daukagun erantzukizunari; adibidez, ahulenak eta behartsuenak zaintzeko betebeharrari. Gizartean denok daukagu gure lekua, eta denok gara garrantzitsu eta beharrezko.

### Bigarren eta hirugarren zikloetarako garapena

Jarri ikasleak bosnaka.

Ikasle bakoitzak orri erdi batean bokal bat idatziko du (taldeko bakoitzari bokal bat esleituko diegu), eta beste orri erdi batean bakoitzak nahi duen kontsonantea idatziko du, baina taldean ezin izango dira kontsonanteak errepikatu.

Talde bakoitzak, dauzkan letrak baliatuz, bururatzen zaizkion hitz guztiak idatziko ditu orri batean. Hamar minutu izango dituzte horretarako.

Denbora hori igarotakoan, talde bakoitzak sortu dituen hitzak esango ditu, eta arbelean idatziko ditugu.

Hurrengo fasean, ausaz bokal bat kenduko dugu (talde guztietan bokal berdina), eta bi kontsonante. Gelditzen diren zazpi letrekin, hitzak sortu beharko dituzte berriro. Gainera, lehen egindako zerrenda hartu, eta fase honetan letrarik galdu ez dutenak bakarrik mantenduko dituzte.

Denbora agortutakoan (beste hamar minutu), talde bakoitzak apuntatu dituen hitzak esango ditu.

Hitz horiek ere arbelean idatziko ditugu, lehen fasean sortutakoen ondoan.

### Hausnarketarako ildoak

Sustatu elkarrizketa ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Ikus ditzagun fase bakoitzean sortutako hitzak. Zer gertatu da letrak faltatzean? Zailagoa izan al da hitzak bigarren fasean sortzea, soilik zazpi letrarekin? Zergatik?
- Konturatzen al zineten zein garrantzia duen letra soil batek izenatarako?
- Letrak hitzak sortzeko diren bezain garrantzitsuak al gara gu gure inguruko pertsonentzat?
- Taldean aritu al zarete lanean? Taldean aritu izan ez bazinete, hitz kopuru bera sortzeko gai izango al zineten? Zergatik?
- Konturatzen al zarete talde bateko pertsona guztiok zein garrantzitsuak garen taldeko gainerakoentzat?

Orain, aipamen bat egingo diogu guk guztiok gizarte gisa dagozkigun eginkizunetan parte hartzeko daukagun erantzukizunari; adibidez, ahulenak eta behartsuenak zaintzeko betebeharrari. Gizartean denok daukagu gure lekua, eta denok gara garrantzitsu eta beharrezko.

### DESBERDINKERIAREN ZIFRAK

Datuetan oinarrituz, desberdinkeria zer den ikusteko eta aztertzeko aukera ematen du jarduera honek, eta horren inguruan hausnarketa egitekoa.

Jarduera hau, segur aski, Lehen Hezkuntzako azken bi mailetarako da bereziki egokia; hau da, 5. eta 6. mailetarako. Interesgarria da gaia zentratzeko eta klipmetraje baten gidoiak behar duen oinarri teorikoa sortzen lagunduko duen hasierako hausnarketa egiteko. Desberdinkeriak pertsonen bizitzan eragin ditzakeen ondorioei buruz hausnartzen eta horiek salatzen lagun dezake.

### Irakasleentzako aurretiazko oharra

Atal honetan, ikasleei giza garapenaren indizea (GGI) zer den azaltzeko oinarritzko informazioa daukazu. Garapenari buruzko datuak aztertu ahal izateko, herrialdeak sailkatu beharko ditugu. Horretarako, GGI indizea erabiltzen da. Nazio Batuen Garapenerako Programako (NBGP) kontzeptu bat da hori, eta oso baliagarria da munduko herrialdeak haien bizi-mailaren arabera sailkatzeko. GGI kalkulatzeko, funtsezko hiru alderdiri buruzko datuak hartzen dira kontuan:

- **Osasuna:** jaiotzean izaten den bizi-itxaropena du ardatz, horrek osasunari, elikadurari, higienerari eta bizimoduari buruzko datuak ematen dizkigulako.
- **Hezkuntza:** hezkuntza jasotzeko aukerak.
- **Maila ekonomikoa:** pertsona bakoitzeko diru-sarreraren nazionala gordina.

Herrialdeak beren GGI indizearen arabera sailkatu ondoren, munduko biztanleria lau multzo hauetan banatuta geratuko litzateke (NBGPren 2018ko txosteneko datuetan oinarrituz).

| GGI                      | Biztanle kopurua |                             |
|--------------------------|------------------|-----------------------------|
|                          | milioiak         | Munduko biztanleen ehunekoa |
| Oso altua (62 herrialde) | 1.439,3          | % 19                        |
| Altua (54 herrialde)     | 2.378,9          | % 32                        |
| Ertaina (37 herrialde)   | 2.732,9          | % 37                        |
| Baxua (36 herrialde)     | 926,2            | % 12                        |

Lagugarri gisa, honako [mapa](#) hau ikus dezakezue.

Esan ikasleei zenbaki horiek batezbestekoak direla, eta Espainiako datuak erreferentzia gisa erantsi ditugula.

| GGI          | Bizi-itxaropena jaiotzean (urteak) |           |         | Eskolatuta emandako urteak, batez beste |           |         |
|--------------|------------------------------------|-----------|---------|---|-----------|---------|
|              | guztira                            | emakumeak | gizonak | guztira                                 | emakumeak | gizonak |
| Oso altua    | 79,5                               | 82,4      | 76,7    | 12                                      | 12        | 12,1    |
| Altua        | 75,1                               | 77,8      | 72,7    | 8,3                                     | 8         | 8,6     |
| Ertaina      | 69,3                               | 70,9      | 67,8    | 6,4                                     | 5         | 7,8     |
| Baxua        | 61,3                               | 63        | 59,7    | 4,8                                     | 3,8       | 5,8     |
| Espainia     | 83,4                               | 86,1      | 80,7    | 9,8                                     | 9,7       | 10      |
| Datuen urtea | 2018                               |           |         | 2018                                    |           |         |

Iturria: Giza garapenari buruzko txostena. NBGP, 2019

### Garapena

Azaldu ikasleei zer den giza garapenaren indizea (GGI) eta erakutsi mapa, ikus dezaten munduko herrialdeak nola dauden sailkatuta indize horren arabera.

Erakutsi jaiotzean daukaten bizi-itxaropenari buruzko taula eta azaldu kontzeptu horrek zer adierazten duen.

Ondoren, eragiketa matematiko batzuk egingo ditugu datu horiekin, herrialdeen arteko konparazioak egiteko eta hausnarketa errazago egin ahal izateko.

- Demagun klase osoa munduko biztanleria osoa dela. Zehaztu zer ehuneko eta zenbat ikasle izango lirakekeen lau herrialde multzo handi horietako bakoitzekoak.
- Jaiotzean izaten den bizi-itxaropenari buruzko datuetan oinarrituz, aztertu zenbat urte gehiago bizi diren emakumeak gizonak baino munduan batez beste eta herrialde multzo bakoitzean.

Atera ditugun kopuruak aintzat hartuta, lau talde egingo ditugu gelan, eta talde bakoitzak herrialde multzo bat ordezkaturiko du. Talde bakoitzean, gogora dezatela zein den haien bizi-itxaropena, bai guztizkoa (gizonen eta emakumeen arteko batezbestekoa), bai gizon edo emakume izatearen arabera.

Jaioterriak gure bizitzan zein eragin handia daukan ikus dezaten, jarduera bat egingo dugu. Azalpentxo bat eman:

«Orain, denak zutik jarriko zarete. Ni kontaktzen joango naiz, eta gogoan daukazuen bizi-itxaropena iristen naizenean, eseri egingo zarete».

50etik gora hasiko gara kontaktzen, eta bizi-itxaropen handienera iritsi arte jarraituko dugu. Talde bateko kide guztiak eseri egin direnean, apurtxo batean gelditu, ikasle guztiak ohar daitezzen horren esanahiaz.

Jarduera hau bizi-itxaropena sexuaren arabera bereizita ere egin daiteke. Horrela, neskak eta mutilak dagokien adinaren arabera joango dira esertzen. Gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea ikusarazteko beste modu bat litzateke.

**Hausnarketarako ildoak**

Honelako galderak egingo dizkiegu ikasleei:

- Zer pentsatzen duzue datu hauek ikustean? Zer erakusten digute datu hauek?
- Zer ondorio atera dezakegu bizi-itxaropenari dagokionez? Pentsatu zuen aitona-amonengan. Taulako beste herrialde batzuetan bizi izan bazinete, izango al zenuten haiek ezagutzeko aukera?
- Lau herrialde multzo horietako eskolatzeko indizeak ikusita, pertsona guztiek ikasteko aukera berdinak dituztela iruditzen al zaizue?

**ABERASTASUNAREN BANAKETA**

Datuetan oinarrituz, desberdinkeria zer den ikusteko eta aztertzeko aukera ematen du jarduera honek, eta horren inguruan hausnarketa egitekoa. Eta jarduera hau ere, segur aski, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailerako da egokiena.

Gaia zentratzeko balio du, eta klipmetraje baten gidoiak behar duen oinarri teorikoa sortzen lagunduko duen hasierako hausnarketa egiteko. Desberdinkeriak pertsonen bizitzan eragin ditzakeen ondorioei buruz hausnartzen eta horiek salatzen lagun dezake.

**Irakasleentzako aurretiazko oharra**

Munduan oso modu desberdinean daude banatuta aberastasunak, eta horrek desberdinkeria ugari eragiten ditu. Datuetan, helduek daukaten aberastasuna dago adierazita, adingabeek duten aberastasun kopurua oso txikia baita. Horrek esan nahi du heldu horietako askok adingabeak daukatela beren kargura; beraz, partekatzeko pertsonen kopurua biderkatu egiten da.

1. koadroa

| Munduko biztanle helduak |          | Aberastasun globalaren ehunekoa |
|--------------------------|----------|---------------------------------|
| Milioiak                 | Ehunekoa |                                 |
| 52                       | % 1      | % 43,4                          |
| 590                      | % 11     | % 40,5                          |
| 1754                     | % 34     | % 14,7                          |
| 2768                     | % 54     | % 1,4                           |

**Iturria: Credit Suisse erakundeak 2020ko aberastasun osoari buruz egindako txostena**

**Hasi baino lehen**

Lehen fasean, jardueraren zati praktikoan, ikasleak taldeka jartzean, aberastasun global gehien dituzten biztanle helduen bi taldeak elkartu egingo ditugu, bestela ezin izango baikenuke talderik aberatsenaren ehunekoa (% 1) klase baten tamainako talde batean islatu. Hortaz, 2. koadroaren arabera, hiru talde izango genituzke:

2. koadroa

| Taldeak | Ikasleen ehunekoa | Aberastasunaren ehunekoa |
|---------|-------------------|--------------------------|
| A       | % 12              | % 84                     |
| B       | % 34              | % 15                     |
| C       | % 54              | % 1                      |



Gelako ikasleen kopurua aintzat hartuta, jarri ikasleak lau taldetan, 2. koadroan adierazitako ehunekoekin bat etorrituz, eta zatitu 1.000 euroak taldeen artean, bertan adierazitako proportzioari jarraituz. Horretarako, adibidez paper bat eman, bertan adieraziz zenbat «aberastasun» dagokien. Ikasleek duten mailaren arabera, kalkulu horiek haiek egin ditzakete.

### Garapena

Banatu ikasleak hiru taldetan, eta azaldu:

«Demagun munduan 100 pertsona helduk egunean 1.000 € jasotzen dituztela. Taldeetan, 100 pertsona horiek ordezkatzeko ari zarete. Orain, aberastasun horretatik dagokizuen zatia hiru taldeen artean banatuko dut. Zuek taldeko kideen artean banatu beharko duzue dagokizuen zatia, zenbat egokitzen zaizuen ikus dezazuen. Pentsatu behar duzue egokitu zaizuen diruarekin nola biziko zinateketen egun batez; ea nahikoa diru iruditzen zaizuen edo ez. Gainera, gogoan izan pertsona helduak ari zaretela ordezkatzeko; beraz, haur txikiak izango zenituzkete zuen kargu».

Utzi denboratxo bat taldeei, beren kalkuluak egin ditzaten. Gero, aurrena C taldeari galdetu 1.000 euro horietatik zenbat egokitu zaion taldeko kide bakoitzari, eta esan dezatela nola sentitu diren eta haien artean zer aipatu duten.

### Hausnarketarako ildoak

Egin ikasleei honelako galderak:

- Bidezkoa iruditzen al zaizue dirua horrela banatzea?
- Ados al zaudete egokitu zaizuenarekin? Zerbait egin al dezakezue horrekin?
- Dirua banatzeko beste modurik ba al dago? Zein litzateke dirua banatzeko modurik bidezkoena?
- Zenbat tokatuko litzaioke pertsona bakoitzari?
- Denak pozik al zaudete dirua banatzeko modu berriarekin? Baten bat galtzaile sentitzen al da?

Hausnar dezagun jatorrizko banaketaren inguruan. Diru gehien duten pertsonak pozik egongo dira dirua banatzeko modu horrekin, baina modu hori ez da bidezkoa.

- Batzuek ongizatea izateko, beste batzuek ongizaterik gabe egon behar al dute? Zergatik?
- Zuen ustez, modu justuagoan banatu behar al da aberastasuna munduan? Zergatik?

Espainia A taldeko herrialdeen artean dago kokatuta, baliabide gehien dituzten herrialdeen artean. Hori kontuan hartuta:

- Prest egongo al zinatekete dirua beste modu horretan banatzeko? Konturatzen al zarete munduan aberastasuna modu justuagoan banatuz gero, gure «ongizatearekin» zer gertatuko litzatekeen?
- Justizia egiteko, agian alboratu egin beharko al genituzke gure «pribilegioetako» batzuk?